

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko uztailak 18 • 103.zka. •

1946

50


1996



San Lorenzoak Portasolen

Mariatxen Urkia

Joseba Larrinaga



UDAk 50 urte

Hiru eguzki



150.000 pta. 12 hilerako.
300.000 pta. 6 hilerako.

FAGOR TARTERAK (28 - 24 zm.)



125.000 pta. 6 hilerako.
200.000 pta. 3 hilerako.

IRRATI-ERLOJU IRETZARGAILUA (Philips)



100.000 pta. 6 hilerako.
175.000 pta. 3 hilerako.

PIC NIC SASKIA (4 Zerbitzuduna)

Hiru artikuluok:
250.000 pta.
12 hilerako,
500.000 pta.
6 hilerako.

Orain Euskadiko Kutxan hiru eguzki bezalako hiru aukera dituzu uda zure aurrezkiei etekin praktikoa ateraz has dezazun. Eta oraindik gehiago dago. Epea mugaeguneratzen denean, Superlibretan eta Super 55ean % 4rainoko interesa jasoko duzu. Anima zaitetz eta emaezu uda ederra zure aurrezkiei.

Informa zaitetz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901-333 444 telefonora deituta gaueko hamarrak bitartean.

Promoziio hau izakinak bukatu arte egongo da.



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**


Erantzun zuzena



Oporretara nora joateko asmoa duzu? Andramaixetan bertan egongo zara?

Ruben Varilla
(Ikaslea)

Logroñora joango naiz gurasoekin, bertan etxea daukagu eta. Urtero joaten naiz hilabete osorako. Andramaixetan ez naiz sekula egon.




Blanca Saez
(Langilea)

Uste dut Galiziara joango naizela 10 bat egunerako. Andramaixetan ez naiz hemen egongo. Beti kanpora joaten naiz, ez ditut ezagutzen.



Fernando Etxebarrieta
(Jubilatua)

Andramaixetan hemen egongo naizela uste dut. Abuztuaren 19an Zamorara joango naiz, emazteak bertan etxea dauka eta.



Lorea Isasmendi
(Ikaslea)

Gurasoekin joango naiz, baina oraindik ez dakit ziur nora joango naizen. Andramaixetan hemen egongo naiz. Aretxabaletako jairik onenak dira.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



ESKUTITZAK

ANDRAMAIXAK DIRELA ETA

OPORRAK!

Aretxagazetari ere oporrak hartzeko ordua heldu zaio eta abuztuaren lehenengo hamabostaldian oporrak hartuko ditugu. Andramaixen ostean berriro zuekin egongo gara. Andramaixen ostean, zenbaki berezia aterako dugu, herriko jaiei buruzkoa. Jaietako gauza bitxiak kontatuaz. Ale berezi hau abuztuaren 30ean, eguakotxa, aterako dugu. Ea lagun asko elkartzaren garen Andramaixetan eta ondo pasatzen dugun. **Besterik barik, ondo pasau oporrak, hobeto Andramaixak eta bueltararte.**

Uda giroa, bero, abuztua, erdi-erdia 15a, zer, eta Atxabaltan Andramaixak!

Badirudi, beti ere, norberan herriko jaixak sakratuak direla baina urteko egun horretan?

Bagara oraindik inor batzuk, gure herriko jaietan egon beharra sentitzen dugunok eta urteak joan urteak etorri urteroko zita bihurtu dena.

Andramaixetan ibiltzen garenok, nolatan errepikatzen dugun ere galde geniezaioke geure buruari, eta erantzun sinple bat gehi geniezaioke: **JAIK BETI JAI** eta gainera norberanak.

Aurten jaietan subjeto aktibo izango gara batzuk, maiatzean hauek prestatzen hasi ginen eta egia esan, nahiz eta partehartzea ez izan oso altua, ona izan zen behintzat. Edo, akaso nor ez dago juergetarako prest?

Betikoa den galderari erantzuna eman behar, "zer dago berezirik Andramaixetan?" Bueno, ekintzak antzerakoak dira aurten, Rock kontzertua, Horteroen eguna eta bazkari herriko berezia izan ezik. Baina zer arrai! norberak jaigiroa barruan badarama eta bertan partehartzen badu, nahiko da!!

Beraz, Andramaixak prestatzen lagundu dugun aldetik gonbita hor doakizue eta besterik gabe ondo pasa zure herriko jaietan, **ANDRAMAIXETAN!!**

Agur bero bat.
Jai Batzordeko partehartzaile bat.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte. Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia.
Erredakzio-kontseilua: Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz.
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Gorka Etxabe, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasgabaster, Joseba Lopez de Armentia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale.
Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378/94.
Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



San Lorentzoak gainean

Koruetan Santixauak

Uztailaren 24 eta 25ean ospatuko dituzte Santiago jaiak Koruetarrek. Bi egun hauetarako hainbat ekintza antolatu dituzte. Eguaztenean, VIII. mus txapelketa eta emakumeen III. briska txapelketa jokatuko dira. Hauen ostean meza ere izango da, eta baita auzo afaria ere. Gauean barriz, Elkorobarrutiarekin dantzaldia. Uztailaren 25ean, Santiago egunez, meza eguerdiko ordu 1etan izango da. Arratsalderako haurren jolasak antolatuta daude.

San Iñazio eguna Muru-alde elkarte

Uztailaren 30 eta 31n ospatuko dute aurten Muru-alde elkarteak patroiaren eguna. Uztailaren 30ean, ilunkaran, txikiteoa izango da Ines eta Naiara trikitilariekin. Afari eder baten ondoren, 10,30etatik goizalderarte erromeria izango da aipatutako trikitilariekin. San Iñazio egunez, 12etan meza egingo da hildako bazkideen omenez. Gero salda eta pintxoak dastatzeko aukera izango dute elkartera hurbiltzen direnek. Eguna bukatzeko bolo txapelketa jokatu da, 12,30etan. Sari garrantzitsuak egongo dira.



PAGLE, Portasol auzoko gazte lagun elkarte arduratu da jaiak antolatzeaz

Uztailaren 19tik 21era bitartean ospatuko dira aurten San Lorentzoak. PAGLE, Portasol auzoko gazte lagun elkarteak antolatu du 3 egun hauetarako egitaraua.

Eguakotxean, hilaren 19an, arratsaldeko 7retan txupinazoarekin batera, kalejiran irtengo dute **buruhandi eta erraldoiek**. Jarraian, "play-back"-a egongo da, eta gauean barriz, **Legazpi** taldearen soinuaz dantzaldia.

Zapatuan, goizeko 12etan eta

arratsaldeko 7retan **sokamuturra** izango da.

Arratsaldeko ekintzen artean, **mus txapelketa, gazteentzako jokoak eta txokolatada** daude, eta gauean **Izadi** taldearekin dantzaldia.

Domeka goizerako **marrakzi lehiaketa** antolatuta dago eta arratsaldean barriz, **ajedrez txapelketa**.

Badakizue, jai gogoa izan ezkerro Portasol aldera hurbiltzea besterik ez duzue egin behar.

TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34


EGUZKI GRAF
 inprimategia

Industrialdea 1-0-4
 Tfnoa: 791844
 Faxa: 792941
ARETXABAETA

BEIRALAN


KRISTALDEGIA
 Loramendi 10 • 79 81 78
 Aretxabaeta

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak
 Errekabarren 3- Behea
 Tfnoa: 79 01 28

IMANOL

JANARI DENDA

Harategia
 BEREZIKI Urdaitegia
 Fruitategia
 Gorbea Kalea • 79 05 83 ARETXABAETA

Nerea Euskerajatorregi gaurtik aurrera kalean

Gaurtik aurrera, hamabostean behin behean azaltzen den moduko esketx batzuk ikusi ahal izango ditugu kalean eta Aretxagazetan.

Loramendi elkarteak batez be gazteen artean hain ezaguna den euskera trakets hori zuzendu guran atara ditu esketxok. Denboratxoa zeroan Loramendiko kultura azpitaldeak gai hau tratatzeko modu egokiaren bila, eta Mikel Arroiabek egindako marrazkiak izan dira azkenik irtenbidea. Marrazki bakoitzaren azpian txarto zelan dagoen eta ondo zelan azalduko da, bai bertako euskeran eta baita batuan be.

Esketxok, ez dute ezelan be barre eragin gura. Nahiko serioa pentsetan zaie Loramendikoei gai hau brometan ibiltzeko; baina geure buruari barre egitea be ona dela eta atara dituzte komikiok. Egindako lanari etekin haundiagoa ateratzeko asmoz, Loramendikoeak bailarako beste euskera elkartei be banatzea erabaki dute, ez harritu orduan Arrasate Press edo Berrigara moduko aldizkarietan edo inguruko herrietako kaleetan neskamotz hau ikusten baduzue.

Pertsonaiaren izenak berak eman dio izana neskatala honi. Nerea Euskerajatorregi hizkera traketsa erabiltzen duen gazte bezala agertuko zaigu kanpainaren lehenengo zatian. Bigarreanean barriz, erdalginak (euskeraz berba egiten ez duten euskaldunak) zirikatzen ibiliko da.

Badakizu bada, neskamotz hau ikusten duzunean, egiozu kasu esaten duenari. Zuzendu ditzagun gure akatsak, euskerak merezi du eta.



Joan zen astean agindutako moduan hemen dago Loramendikoeak Andramaixetarako atara barri duten pegatina. Esloganen lehiaketako irabazlea Jon Etxeberria izan da, epaimahaikoei oso esanguratsua pentsatu zitzaian “... eta Txetxenian txetxenieraz” lema. Hala ta be ez zen samurra izan erabakia hartzea, 65 partaideen artean irabazleaz gain beste hiru lema hauek heldu ziren finalera: Iker Agirrearen “EUSKERA ARETXAbaletaREN SUSTRAI”, Aitor Zaloñaren “EMOIZTAZU AUKERIE MAITTIE” eta Mirari Ayastuyren “GU ZERTAN EUSKARA BERTAN”. Ea ba jaiak euskal giroan eta ondo ondo pasatzen ditugun.



Eruengo dostazu (eroango didazu) → TXARTO

Eruengo naizu (eroango nauzu) → ONDO

Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskera elkartea

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkiteki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

BP Amaia-Berri, S.L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



Aurrekoan herrian izan genuen Bartzelonako Marino familia: Agustin, Yei, Esmeralda eta Josefa ditugu argazkikoak. Herriko kaleetan kantatu, musika jo eta ahuntzari dotore dantzatzea eragin zioten. Euren lanbidea dute hau eta urte guztian zehar hara eta hona ibiltzen dira. Familiatik datorkien ogibidea edo ohitura dute. Neguan Bartzelonan egoten dira eta uda partera Espainia guztian giran irteten dute. Asturias eta Galiziatik etorri ziren gure herrira eta orain Zaragoza aldean izango dira, etxerako bidean.

Futbol 7 tornea

Kutxa Fundazioko Gaztetxoek klubak, Gipuzkoa mailako Futbol 7 tornea antolatu du. Ibarako futbol zelaian jokatu da uztailaren 15etik 25era eta arratsaldeko 3retatik 7etara bitartean. Guztira 21 talde daude apuntatuta, horietatik 5 neskenak dira.

Mediterraneotik Kantaurira bizikletan

Deba Bailarako euskera elkarte guztiak osatzen duten Debagune taldeak abuzturako Mediterraneotik Kantaurirako martxa antolatu du bizikletaz. Abuztuaren 3tik 17ra bitartean egingo da pirineoak alde batetik bestera gurutzatuz. Ibilbide luzea dirudien arren inor ez dadila larritu, mota guztiak jendearentzat egokitu da eta irteera. Informazio gehiagorako deitu Loramendi Elkartera, 77 09 70 telefonora edo bailarako beste edozein elkartera.

Igerilekuko karnetaz Arrasateko igerilekura

Urteroko moduan, aurten ere kiroletxea itxita egongo da abuztuan. Hori dela eta, uztailaren 29tik irailaren 2ra Aretxabaletako igerilekuko karnetarekin Arrasateko igerilekura joateko aukera izango da. Gogoratu 6 urtetik beherakoek derrigorrez karneta behar dutela Musakolako igerilekua erabiltzeko.

Mutikoak kalean saltzaile



Oporrak heltzen direnean neska-mutiko asko ikusten da kalean "denda" ipini eta saltzen.

Argazkikoak, Gorka, Mikel, Aitor eta Jon ditugu eta aurreko batean kalean harrapatu genituen gauzak saltzen.

Pulserak, autoak, Superman, pistolak, ezpata, majia jolasa eta denetik zuten salgai, baina hori bai dena merke merke.

Gainera asko saldu zutela esan ziguten. Negozio ederra egingo zuten. Jasotako diruaz merendola egiteko asmoa zuten.



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABAETA

Andramaixak, herriko jaixak!!!

- Lau buruhaundi berri, Tango ikuskizuna, Baron Rojo eta La Txusma taldeekin rock kontzertua, Orteroen eguna, herri bazkaria....
- Bost txozna jarriko dira industrialdean
- Jaietako aurrekontua 5.426.000 pezetatakoa da

Abuztuaren erdi-erdian zain izango ditugu Andramaixak. Batzuk kanpoan izango dira, baina herrian geratuko edo eta ahaztu barik jaietarako etorriko direnendako egun politak pasatzeko aukera izango da.

Aurtengo programa herriko koadrilek eta kultura batzordeak antolatutakoa izan da. Elkarrekin, adin guztiei zuzendutakoa antolatu gura izan dute. Baina hori bai, jaietan giro polita egotea gura bada guztion ahaleginak beharko dira.

Urteroko ekintzak ez dira falta-ko, mus txapelketa, meza, ikurrinari agurra, bolo txapelketa, Zumaiako banda, pelota partiduak, suzko erruerak, txirrindulari lasterketa, sokamuturra, e.a.

Aurtengo programaren ekitaldi aipagarrienak, tango ikuskizuna, Rock kontzertua eta 3. egunean egingo den Orteroen eguna izango dira.

Egun guztietan egongo da kaleko giroa animatuko duen ekitaldirik, trikitaliak, kaleko antzerkiak, umeentzako parkeak, txarangak, musika errezitaldiak, e.a. Baina lasai egon, guzti hau zehatzago irakurri ahal izango duzue Andramaixetako jai programan.

Bost txozna jarriko dira aurtien industrialdean: Aretxabaletako musika taldeak, Talde Antimilitaristak, Gestorak, JARRAIK eta Euskadi txirrindulari taldeak.

Jaietako aurrekontua 5.426.000 pezetatakoa da. Kopuru haundiena ondorengo ekintzetara bideratuko da: Rock kontzertua: 750.000 pezeta; suzko erruerak: 500.000; pilota partiduak: 475.000; txirrindulari karrera: 300.000; Zumaiako banda: 290.000 pezeta, e.a.

Ba... besterik ez. Orain jaiak heltea eta ahalik eta ondoen pasatzea besterik ez zaigu gelditzen.



Felis Beltran de Herediak irabazi du Andramaixetako kartel lehiaketa

**Ondo pasau oporrak
eta hobeto
Andramaixak**

ERREKABARREN MERCATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

JOSE MARI bodegoia

- (Eguneko menua
- (Bataioak
- (Jaunartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45
ARETXABALETA

TXAKOLI


- a - Pintxoak
- b - Kazuelak
- e - Pulpo espezialitatea
- r
- n Andra Mari Auzunea
- Tfnoa: 79 02 25
- a ARETXABALETA



AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57

Aretxabaletako P.S.E.-E.E. BERBARI euskeraren hitzarmenetik kanpo gelditu da




**BERBARI
EUSKARAREN
HITZARMENA**

Joan zen uz-tailaren 4an BERBARI Euskeraren hitzarmenaren 2. Batzar Orokorra egin zen. Bertan hitzarmena sinatu zuten 26 taldetatik 19 azaldu ziren. Loramendi Elkarteko sentsibilizazio taldeak urtebeteko lanaren emaitzak aztertu eta balantzea egin zuen.

Urtebeteko epe honetan orokorrean lortutako emaitzak positiboak izan dira. Hala ere, esan beharra dago P.S.E.-E.E.k BERBARI hitzarmena sinatu bazuen ere, hitzarmenak eska-

tzen dituen konpromezuak ez dituela bete. Honez gain Loramendi Elkartek ez du talde honekin harremanik izan. Hori dela eta, gainontzeko talde guztien izenean hitzarmenetik kanporatua izan da, hau betetzeko borondaterik azaldu ez duelako. Hitzarmenak hasiera batetik garbi esaten zuen, hitzarmenean sartzea borondatezko erabakia zela eta betetzeko borondaterik azaldu ez duen taldea kanporatua izango zela. Hala ere, atek zabalik ditu berriz ere hitzarmena sinatzeko, honek eskatzen dituen konpromezuak betetzeko jarrera aldaketa azaltzen duenean.



Arientzako jaietarako II. kartel lehiaketa

Irailean ospatzen diren Arientzako Andramaixetarako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatuta dute arientzarrek. Parte hartzeko arientzarra, senitartekoa edo laguna izan behar da. Kartela DINA-4 tamainakoa izan behar da bai koloretan edo eta txuribeltzean egina. Gaia Arientza, eta aurkezteko azken eguna abuztuaren 27a. Saritan 15.000 pezeta banatuko dira. Lehiaketa honen babeslea FELIX ILEMOZTEGIA da eta lehiaketaren arauak zehatzago jakin gura dituenak bertara jo dezake.



Hara zer agertu zen aurreko batean Deba ibaian. Bai, bai, argazkian ikusten duzuen. Gezurra badirudi ere dordoka bat da eta ez txikia gainera. Harri horren gainean zegoen eta denbora askoan egon zen bertan uretara sartzeko bildurrez. Normala, ibaian dagoen kutsadurarekin... Itxura denez, Urkuluko urtegian ere ikusi dituzte antzeko batzuk.

**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK**

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

IBARRA

ESTANKOA
Tabakoa eta ikasmateriala
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak
Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Aretxabaleta

**URBALTZ
TABERNA**

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Lie

Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



Mariatxen Urkia sopranoa, kantuan pausoz-pauso

Aurtengo urteak eman duenari pozik begiratzen dio Mariatxenek, eta horretarako arrazoirik ere badu. 28 urteko soprano honek gregoriano koruarekin batera EEBBetan kantetako aukera izan zuen, eta hau gutxi balitz uztai-lean Bartzelonara kontzertua ematera joan zen. Euskal Autonomi Elkarteko ordezkari gisa kantatu zuen bertan, Bartzelonako Lizeoa berreraikitze eta zaharberitzearen alde egiten ari diren ekitaldien artean. Kontzertua oso ondo joan zitzaiola kontatu digu: *“Lizeoan abestea mito bat da abeslariarentzat, nik bi kantu abestu nituen eta honez gain beste bi abesteko eskatu zidaten. Hori gauza haundia izan da niretzat”*.

Txiki-txikitatik izan du Mariatxenek kanturako afizioa. Ume-umetatik hasi zen bere ahotsa lantzen eta gaur egun kantoko karrera egitera iritsi da.

“Monjetan nengoenean gitarra jo eta kantatzera joaten nintzen. Gero Almenen nengoela ere, beti parte hartu izan dut koroan”. Horrela gogoratzen ditu Mariatxenek kantuan eman zituen lehen urratsak. 13 urterekin Aretxabaletako abesbatzean kantatzeari ekin zion. Gaur egun, 28 urterekin, kantoko irakasle titulua atera berri du, Donostiako kontserbatorioan.

Umetatik kantatzea gogoko izan du Mariatxenek. Gaur egun, 28 urterekin kantuko erdi mailako karrera bukatu du eta datorren urtean goi mailako ikasketekin jarraituko du. Honez gain, musika eskolako zuzendari barria ere izango da.



Baina ahotsa eta kantua mundu honetan barrena sartzen lagundu diona Angel Barandiaran, bere senarra izan da. *“Angel izan da karrera hau ikastera animatu nauena. Abesteko ezaugarriak nituela esaten zidan eta proba egiteko. Horrela hasi nintzen Donostiako kontserbatorioan ikasten”*.

Sei urteko karreran bere ahotsa laduz joan da, eta kurtso bakoitzeko kualifikazio altuak lortu ditu. Bere ikasketak ez dira hemen bukatu ordea, datorren urtean kantuko karrera amaitzeko, geratzen zaizkion goi mailako bi urteak ikasten jarraituko du. Gainera beste erronka berri bati ere aurre egin beharko dio, Musika Eskolako zuzendari kargua hartuko du-eta datorren ikasturtetik aurrera. Beldur pixkat ere baduela aitortu du. Gaur egun Musika Eskolak duen maila ikusita ez baita

nolanahiko kargua izango.

Orain arteko moduan, aurrera pausoz-pauso joan behar dela garbi du Mariatxenek. Ahotsa aldatzen doa eta berea ere tramitean dagoela esaten du, eta oraindik asko ikasi beharra daukala. Aurrera begira ez du helburu finkorik markatzen. Lehenengo ikasketekin bukatzea du buruan eta gero gerokoak.

“96. urtea oso aberatsa izan da niretzat. Hala ere, ez diot neure buruari helburu finkorik ipintzen, orain arteko moduan pausoz-pauso aurrera jo behar dut”



ZUBIA
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



EZKUTU
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

50 urte luzetako etapa zabaltzen da UDA, Aretxabaletako kirol Elkartearen bizitzan. 1946. urteko irailean ekin zien UDAk kirol ekintzei, geroztik aldaketa ugari izan ditu.

Ezin da tarte txiki honetan 50 urte hauek eman duten guztia esan, ez da hori gure asmoa. Hala ta be, urtearen bukaeran kaleratuko da historia zehatzago jasotzen duen liburua.

Ondorengo lerroetan saiatu gara UDAn egon diren kirol desberdinei gainbegiradaxo bat ematen.



1954. urteko abuztuaren 29an, Ibarra futbol zelaiko inaugurazioa. Alaves-a eta Errealaren arteko partidua jokatu zen. Argazkikoak: Ezkerrean: Anton Martinez de Agirre, Lucia Etxabe (alkatearen emaztea), Bernardino Zubia (alkatea), Mariano Otero. Umeak Zubizarreta anai-arrebak.

UDA, 50 urteko historia

Futbola izan da UDA Elkartearen sortu zenetik garrantzia gehien izan duen kirola. Baina futbolaz gain beste kirol batzuk ere sartzen dira UDAREN historian. Pelota, txirrindularitza eta mendia esaterako Elkartearen sortu zenetik egon dira. 1951. urtean atletismoko taldea sortu zen eta beranduago eskubaloia eta saskibaloiko taldeak ere bai.

Goian aipatutako moduan, 1946.eko irailean ekin zion UDAk kirol ekintzei eta 50 urtetako etapa honetan 19 lehendakari izan ditu; lehena Juan Luis Izagirre izan zen.

Futboleant, 1946-47koa izan zen lehen denboraldia, 2. erregionaleko kostaldeko taldean. Lehenengoko partidu ofiziala 1946ko irailaren 15ean jokatu zen Iturripen.

Geroztik, lortutako garaipenak ugariak izan dira: 39 denboraldi erregionaleko maila gorenean; lau denboraldi 3. mailan; zazpi denboraldi 2. erregionalean; 71-72 denboraldian Estatuko Afizionatuen txapelketa izan zen; Gipuzkoako afizionatutetan 3 aldiz txapelketa; Gipuzkoa mailako 2 kopa; presidentearen kopa bat; Federazioko trofeo bat, e.a.

Ez da gutxi aurrean lortutakoa, eta horri gaur egun elkarteak dituen federatutako 6 taldeak gehitu behar zaizkio: Gorengo Erregionala, Lehenengo Erregionala, Nesken taldea, 2 ekipo Gazte mailan, ekipo Kadetean eta Infantilan.

Ez zen askoren burutik pasatuko egunen batean neskak futboleant jokatzeko ikustearena.

Pelota, Elkartearen sorreratik egon da. 1948. urtean UDAk sortu zuen *Cuenca del Deba* txapelketa eta Aretxabaletan jokatzeko hasi zen. Gaur egun herriz herri liga antzera jokatzeko da. Honez gain, 20 urte darama UDAk herrien arteko txapelketan parte hartzen.

Mendiko saila ere sorreratik egon da elkarteant. 1987. urtean Murruxio M.E. sortu zen eta 1989. urtean Zarama M.T. Gaur egun euroko daramatzate mendi inguruko ekintza guztiak.

Txirrindularitzak ere hasieratik

izan du bere tarteant elkarteant. 1949an bere ekipo propioa sortu zuen UDAk eta 5 denboraldi egin zituen. 1967an Nazioarte mailako lehen ziklo kross proba ospatu zen eta 23 urtetan antolatuta izan da.

1951. urtean izan zuen UDAk lehenengoko atletismo taldea. 1988. urtetik aurrera ALMENEkin sinatutako hitzarmena medio, elkarlanean lantzen da.

Eskubaloia eta saskibaloia taldeei dagokienez gaur egun desagertuta daude.

Hainbat kirol tartekatu dira UDAREN historian. Pertsona askoren lana behar izan da horretarako eta 50 urteren ondoren fruituak hor daude. Gure herrian kirolak garrantzi handia izaten jarraitzen du. Ez beharbada, lehenagoko moduan, baina kirolarekiko afizioak hortxe dirau eta lanean jarraitu beharko aurrerantzean ere.

50. urteurrena dela eta egingo diren ekintzak:

1995eko azaroan UDAko lehendakari ohiekin osatutako batzordea eratu zen ospakizunen egitaraua antolatzeko. Kirol sail bakoitzak bere ospakizun berezia izango du.

Ekintza nagusia abendu hasieran izango da Zaraia zineman: Kirol Elkartearen historia kontatzen duen liburua aurkeztuko da. Liburuak 200 orrialde izango ditu eta 100 argazki. Guztira 1000 ale kaleratuko dira. Elkartearen inguruan egindako lanagatik hainbat pertsona omenduko da.

FUTBOLA:

Abuztuak 21, eguaztena
Aldagela eta eserlekuak inauguratuko dira. Erreala-Alaves partidua arratsaldeko 7retan. ETBk zuzenean botako du. Partidu honetan lehen plantilako guztiak omenduko dira eta baita Juan Arregi ere.
Urtea bukatu aurretik beste partidu batekin 3 plantila omenduko dira.

MENDIA:

Irailak 8, domeka
Kurtzebarriko eguna
Azaroak 10, domeka
Aretxabaletako inguruak ezagutzeko

ibilaldia egingo da auzoetatik.

TXIRRINDULARITZA:

Urriak 13, domeka
Aretxabaletako herri barruan OPEN deritzon kriteriuma antolatuko da 20 txirrindulari profesionalekin eta 10 afizionatuekin.

PELOTA:

Urriari, 4 eta erdiko kanporaketa antolatuko da.

ATLETISMOA:

Azaroan kross herrikoia antolatu gura da Aretxabaletako kaleetan.

Juan Martinez de Agirre eta Mariano Oterok gertutik bizi izan zuten UDA elkartearen sorrera. Lehenengo zuzendaritza batzordeko pardaide izan ziren biak eta baita UDAko jokalaria ere. Tartetxo honetan elkartearen sorrerako urte haiek nolakoak izan ziren gogora ekarri gura izan ditugu Anton eta Marianorekin izandako elkarrizketan.

• Zenbat denboran egon zineten UDAko zuzendaritza batzordean?

Anton: 13 urtez izan nintzen zuzendaritza batzordeko partaidea. Lehenengo 7 urteetan idazkari lanak egin nituen, ondorengo 6 urteetan lehendakaria izan nintzen. Horrez gain, 4 urtez jokatu nuen taldean. Gero belaunean min hartu eta utzi egin behar izan nuen.


Mariano: Guztira 11 urtez baina ez jarraian, bi zatitan. Nik mendiko arloa eramaten nuen, baita diruzain lanak eta bazkideen kuotak ere. Taldean ere jokatu nuen, norbait falta bazen deitu egiten zidaten eta.

• Zer dela eta horrenbeste denboran?

M: Batzorde berria aukeratu behar zenean, nork lan gehien egin zuen, hura izaten zen aukeratua. Horrela beti berdinak ateratzen ziren. Gero erabaki zen 2 urtetik behin aldatzea.

• Nola sortu zen UDA?

M: Elkartea sortu baino urtebete lehenago Arrasateko futbol taldeko Ayala lehendakariak esan zidan gure herrian futbol taldea sortzearen ideia. Erropa eta gainontzekoa euren kontu



Anton Martinez de Agirre eta Mariano Otero

“Elkartea sortu zenean beste ezer ez zegoen herrian eta jende guztia joaten zen futbol partiduetara”

gelditzen zen. Horrela hurrengo urtean sortu zen taldea. Hasieran Arrasateko batzuk ere bazeuden taldean. Gu bazkideak batzen hasi ginen eta gabonetarako 400 bazkide lortu genituen.

• Zer gogoratzen duzue hasierako urte haietaz?

A: Lana gogor egin beharra zegoen. Batzarra astean behin izaten zen baina hala ta be, batzordekide batzuk egunero elkartzen ginen zentro katolikoan. Elkartearen inguruan berba egiten genuen gehienetan. Kirolarekiko beste bizi-tasun bat zegoen orduan.

Aretxabaletan, U.D.A. bakarrik zegoen eta jende guztia joaten zen partiduak ikustera. Herriarentzat gauza handia izan zen elkartea

sortzea.


• Anekdotarik?

A: Futbol partiduen orduak Don Angel abadearekin konbinatu behar izaten genituen. Harek, arratsaldeko bezperetara jendea joatea gura izaten zuen eta orduan bezpera orduetan ezin izaten genuen bolotan, pelotan, e.a. egin. Bestela aguazila atzetik izaten genuen.

Bedarretako futbol zelaia egiten herri guztiak lagundu zuen. Futbol zelaia egin aurretik Arrasaten jokatzeko genuen eta oinez joaten ginen bertara.

• Eta beste kirolek zer garrantzi zuten?

M: Beste kirolek ere afizio handia zegoen. Mendia, txirrindularitza, atletismoa eta pelota, elkartea sortu zenetik egon dira. Pelotarekiko afizioa orain baino askoz ere haundiagoa zen. Frontoia okupatuta egoten zen beti eta lekua hartzen ibili behar izaten genuen.




Bizikletaz ibilbideak

5. ibilbidea:

Asentzio-Muru

- **Denbora:** 2,30-3 ordu bitartean.
- **Etaparen deskribapena:** Gaurko etaparen berezitasunik nabarmenena 2 menditara iritsiko garena da: Asentzio eta Muru. Etapako lehenengo zatia (Asentziara arte) aurreko irteeretan egin da beraz etaparen aurkezpenean ez dugu aipatu. Bide gehiena pistatan zehar egiten da eta batez ere Murura eramaten gaituena harrizkoa eta oso eroso da, aldapa haundi barik.
- **Ura:** Ez dago inongo arazorik, Apotzan eta Untzilako eleizako iturrian ura hartzen badugu.
- **Katalogazioa:** * (Erraza). Distantzia aldetik ez du arazorik ez eta teknikoki ere. Agian gogorra izan daiteke 2. tontorrera egin beharreko igoera.



ETAPAREN DESKRIBAPENA

- Aretxabaletatik irten eta Eskoriatzara. Hemendik Apotzara eta Asentziara. (Aurreko Aretxagazeta batean deskribatzen genuen).
- Asentzio eta Kurtzetara joateko bidegurutzea, Eskumatara hartzen dugu. 300 bat metrotara ikusiko dugu Asentzioko tontorra. Gurutzeraino igoko dugu (bizikletaz igo daiteke).
- Asentzioko tontorretik aldapa jeitsi ondoren ezkerretara, pinudian barne sartzen den pista hartuko dugu (lurrezkoa).
- Bideren bat agertzen bada, jarraitu beti ezkerretara doana.
- Eskumatara beheruntz doan pista bat hartuko dugu ezkerretara eta goruntz doana utzita.
- Lautadatxo baten amaieran bidea bitan banatzen da. Biek Untzilara eramango gaituzte baina guk eskumakoa hartuko dugu.
- UNTZILA. Asfaltatutako bi bide ditugu bat eskumatara eta bestea ezkerretara. Guk eleizaren albotik goruntz doan errepide estua hartuko dugu.
- Ermita txiki baten albotik (eskumatara) jarraitzen dugu.
- Bide lau bat doa eskumatik eta beste bat aldapan gora ezkerretik. Ezkerretara hartu.
- Murura doan pista nagusira ateratzen gara. Goruntz jarraituko dugu. Hemendik aurrera ez dago galtzerik. Jarraitu bide nagusia.
- MURUKO GAINA. Gurutzeraino igo daiteke bizikletaz. Hemendik Aretxabaletarantz jeisten ekingo gara.
- Lehen jarraitutako bidea ikusten dugu baina ez dugu hartuko. Pista nagusia jarraituko dugu beheruntz.
- Pista honetatik errepidera irtetzen gara. Eskumatara hartuko dugu Galartza auzorantz.
- Errepidearen ezkerrean Galartzako Dorretxea ikusiko dugu.
- Errepide nagusiago batetara irtengo gara eta ezkerretara jeisten jarraituko dugu.
- Aretxabaleta. Etapa amaiera.

Joseba Larrinaga

Atlantako joku paraolimpikoetara

Abuztuaren 12an Atlantara abiatuko da Joseba Larrinaga bertan egingo diren joku paraolimpikoetan partehartzera.

5000 metroak eta maratoia korrituko ditu. Bere burua maratoirako ikusten du egokien, baina hala ta be, ahal duen guztia egitera joango da.

Guk onena opa diogu hemendik. Ea ba, medailarik ekartzen duen bueltan.



Honekin batera hezetasun handia dago. Baldintza horiek oso gogorak dira niretzat. Maratoia ez dakit zelan planteatuko den baina errespetu handia ematen dit. Horrelako klima dagoen lekuan, likiduak ondo dosifikatu eta neurtuaz joan behar duzu. Klima horretara ondoen egokitzen denak aukera hobek izango ditu.

• Zein proba egingo dituzu?

5.000 metroak eta maratoia korrituko ditut. 5000 metrokoan ni baino askoz bizkorragoa den jendea dago. Nik konfindantza haundiagoa dut maratoiarako. 42 Km-ko ibilbidea izango du maratoiak. Distantzia luzeetan hobeto defenditzen naiz.

• Estatutik eta Euskaditik jende asko joango da paraolimpikoetara?

Nire kategoritik 11 lagun goaz, hortik lau euskaldunak gara, 2 korrikalari eta beste bi igerilari. Baina kategoria asko dago: elbarritu fisikoak, paralisis zerebrala dutenak, itxuak, gurpildun aukietan dabiltzanak, e.a.

• Aretxabaletatik beste norbait joango da Atlantara?

Bai, Pedro Azkargorta, Ramon Eraña eta nire aita ere etorriko dira. Baina hauek euren kontu doaz. Ni barrez selekziokoekin noa.

eman didate.

• Ilusioz zaude joateko?

Bai, ilusio handia daukat. Gogor entrenatzen ibili naiz, eta nire buruagan konfidantza daukat. Ahal dudana guztia ematera eta borrokatzera noa. Guzti honekin neuretzako satisfazio pertsonal bat lortzen dut.

• Gogor entrenatu duzu orduan?

Bai, oso gogor, azken urte honetan gehienbat. Pedro Azkargorta izan dut entrenatzaile eta egia esateko asko lagundu dit. Eguneroko eguneroko 2 ordu

entrenatu ditut. Ez da asko baina honetaz aparte lana ere egin behar dut, eta nahikoa dela uste dut. Azken egunotan 20tik 25 Km bitartean egin ditut egunero. Igandetan 27-30 Km bitartean.

• Jana ere zaindu duzu?

Nire kontutik eraman dut janaria. Neurri-neurrira ez dut eraman, etxean dagoena jan dut.

• Atlanta zelako lurraldea da zure baldintzetarako?

EEBBetako hego ekialdean dago eta bero haundiak egiten ditu.

“Ilusioz nago Atlantara joateko. Gogor entrenatu dut horretarako eta konfidantza daukat neure buruagan”

• Noiz hasi zinen paraolimpiadetarako gertatzen?

Berlinen munduko txapelketan (1994) egon nintzenetik pentsatu nuen paraolimpiadetarako gertatzen hasia. 5000 eta 10.000 metroak ez zitzaizkidan horren ondo joan, maratoia barriz nahiko ondo. Azken bi urteetan horretarako gertatzen ibili naiz.

• Noiz jakin zenuen joango zinela?

Minima joan den urteko urrian egin nuen Donostiako maratoian, 2 ordu eta 35 minutu. Tenporada orduantxe hasten zen eta nik marka ona egin nuen. Berbaz aukera handiak nituena aspaldi esan zidaten, baina fitxa ofizialaren zain egon naiz, eta hori ekainean



Udalekuetan, zelako ondo!

Agur esateko ordua iritsi zaie udalekuetan ibili diren ume eta begirale guztiei. Uztailaren 19an azken jaia egingo dute lagunei eta hain ondo pasatako momentuei azken agurra emateko. Udalekuei datorren urterarte esango diete, oporrei barriz ongi etorri.



eta gero astoan zeharkatu zituen herriko kaleak ume eta monitore guztiak atzetik zituela.

Euskal Jaia

Poxpolin
Ortzadarreko
neska
panpoxarekin
batera kalejira
egin zuten ume
guztiek
Aretxabaletako
kaleetan zehar.

Lehenengo
plazan
tirolinatik
behera jeitsi
zen Poxpolin

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

MITARTEGARAI
Jatetxea

- Nekazal turismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

ARGAZKIAK

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak
Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak
Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



Orain 50 urte...

Argazkiari begiradatxo bat eman eta oroimena 50 urte atzera joaten da. U.D.A.k izan duen lehenengo taldea duzue argazkietan. 1946-47koa izan zen lehenengo denboraldia, 2. Erregionaleko kostaldeko taldean.

Lehenengo denboraldi hartan "Juventud Deportiva Aretxabaleta" izenarekin jokatu zuen, baina 1947ko apirilaren

13an ospatu zen asanbladan erabaki zen betirako izena, U.D.A. (Unión Deportiva Aretxabaleta) hain zuzen ere. Bertan lehenengoko estatutuak onartu ziren.

Argazkiko mutilek, lehenengoko partidua Ondarrun kontra jokatu zuten, emaitza ondarrutarren aldekoa izan zen 3-5.

Goiko argazkia Elgoibarko Lerun futbol zelaian aterata dago, 1946. urteko urriaren 6an. Taldearen 4. partidu ofiziala izan zen. Eibarren aurka jokatu zuen Aretxabaletak eta 6-1 galdu. Konturatuko zineten jokalariai fraka urdinekin jantzita daudela, izan ere, lehenengo denboraldi hartan fraka urdinekin jokatu zuten. Hurrengo urtetik aurrera fraka txuriak jantzi zituzten eta gaur egunera arte horrela mantendu da.

Goian ezkerretik eskumara: **Anton Martinez de Agirre, Vicente Gonzalez, Karmelo Legazpia, Ramon Barrutia, Juan Egidazu, Gregorio Bolinaga.**

Behean: **Ignacio Ceciaga, Jose Luis Kortabarria, Pedro Ezpeleta, Maximo Uribesalgo, Jose Mari Izagirre.**

Entrenatzailea: **Jacinto Azurmendi.**

Delegatua: **Clemente del Teso.**

Aipatutako hauek argazkian daudenak badira ere orduko taldea beste hauek ere osatzen zuten: Tomás Alzola, Cipriano Agirre, Fidel Antxia, Jesus M^a Antxia, Ramón Antxia, Jesus Atxa, Vidal Castro, Cándido Etxeandia, Pablo Ezpeleta, Joxe Etxagibel, Ignacio Garcia-Etxabe, Javier Igartua, Mariano Otero, Antonio Uribe-Etxebarria, Santi Uribesalgo, Jesús Zubizarreta.

U.D.A.ko lehenengo zuzendaritza batzordea osatu zuten partaideak, Juan Luis Izagirre, Mariano Otero, Anton Martinez de Agirre, Luis Leaniz-Barrutia, Eugenio Aretxaga, Clemente del Teso, Lorenzo Peña, Pablo Lizarralde eta José Galdós izan ziren.



**AMETS
TABERNA**

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

Iber

✿ **Paperdenda** ✿

Otalora, 2 ■ Tfnoa: 79 79 24
Aretxabaleta

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
Kroasantegia
"Janari prestatuak"

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08
ARETXABAleta

**PIÑOS
SUNZUE S.A.**

**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

Udan, artistak



M.J. Aretxaga

Udan eguzkiak bazter guztiak berotzen dituenean negu partean euren talentuak ezkutuan mantentzen dituzten artistak ikusten dira edozein lekutan, marrazkilariak, margolariak, antzezleak... kolorez betetzen dituzte kaleak, edozein jai edo lehiaketa aprobetxatuz.

Joan zen astean adibidez Aretxabaletan X. Margo lehiaketa egin zen. 44 artistek hartu zuten parte. Lehenengo atxabaltarra gure kolaboratzailea den **Mikel Arroiabe** izan zen. Bigarrena, **Pauxi Bengoa** eta **Idoia Elexpuru** hirugarrena.

Gasheetan barriz, lehenengo atxabaltarra **Igor Olalde** izan zen eta epaimahaikoek behin eta berriz azpimarratu zuten bere lan txukuna. Beharbada Picasso berri bat izango dugu laster gure artean.

Artistekin jarraituz, badakitzue Aretxabaletan neska

gazte lirain berri bat dabilela, **Nerea Euskerajatorregi** da bere izena. Sortzailea, **Mikel Arroiabe** izan da. Neska hau izango da Andramaixetan **LORAMENDIKOEK** aterako duten pegatinaren protagonista. Pegatinak eslogana ere izango du eta azken hau **Ion Etxeberriak** asmatutakoa da. Ea gustatzen zaizuen.

Pintzelak alde batera utzi eta brotxa hartu dutenak **Murrukixokoak** izan dira. Leixargarateko aterpea dotore-dotore utzi dute. *Deskuiduan* norbait margotzeko gogoaz gelditu bada, nik badaukat etxean margotzeko premian dagoen gela bat.

UDAko aldagela berriei ere margotzea falta zaie bakarrik eta laister dena gertu egongo da, abuztuaren 21ean Erreala eta Alavesaren arteko partidua inauguratzeko. Egun horretan **Juan Arregi** eta **lehen plantilako guztiak** omenduak izango dira.

Jaizaleok, badakizue aste bukaera honetan **Portasolen** jaiak izango dituzuela, beraz aprobetxatu. Nik asmo hori dut behintzat.

Urtea luzea izan da eta nekatuta nago, orain oporretara noa, baina ez pentsa nitaz hain samur libratuko zaretenik, Andramaixetarako bueltatuko naiz aber ze giro dagoen. Ondo pasau eta gutxi gastau.

ARETXAZOKA

LANA

- Umeak edo zaharrak zainduko nituzke edo eta etxeko lanak egin. Tfnoa: 77 02 13
- Idazkaritzan diplomatuak lanak ordenagailuz pasatuko nituzke. Tfnoa: 79 31 47.
- Euskeraz, ingelesez, gaztelera eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

- Giltza batzuk galdu dira Loramendi monumentuaren ondoan. Norbaitek aurkitu baditu deitu 79 43 75 telefonora. Eskertuko zaio.

ETXEBIZITZA

- Apartamentu bat salgai dago Eskoriatzan. Telefonoa: 74 01 17
- Pisu bat salgai dago. 83 m² ditu eta jantzia. Solo haundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma).

- Garaje bat salgai dago Murubide kaleko 15. zenbakian. Telefonoa: 77 00 97.

- Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

- Pisu salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Egurdian eta arratsaldean).

- Laredon uztailen apartamentu bat alokagai dago. Telefonoa: 79 52 80.

- Laredon pisua alokagai dago. Tfnoa: 79 31 47.

- 3 neska euskaldunek pertsona bat behar dute Madrilen pisua osatzeko, ekainetik aurrera. Tfnoa: (91) 4043838

- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17


- Garaje bat alokagai dago. Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. Lurraspiko lehenengo pisuan. Telefonoa: 79 05 28

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



Dabid Berezibar

"Hegaz egitea izan da nire betiko ametsa"



Aurreko 3 urteetan moduan, aurten ere piragismoa erakusten dihardu Dabidek Urkuluko urtegian. Piraguismoarekin batera beste kirol batzuk praktikatzea gogoko ditu, mendia esaterako, baina betiko bere ametsa hegaz egitearena izan da.

• Nola doa aurtengo uztaila?

Eguraldiak ez digu asko lagundu eta uretako ekintzetan eguraldiak lagundu behar du. Hala eta ere bustitzen gara eta ondo pasatzen dugu.

• Zer da piraguismotik zailena?

Eskimotatzea, uretan bueltak ematea, horregatik zailena erreka bat jeistea izango litzateke.

• Emakume ala gizonezkoak animatu dira gehiago?

Emakumeak.

• Zein kirol praktikatu eta zein ikusi?

Kirol biziak gustatzen zaizkit, ikusteko, rallyak, motor karrerak, e.a. Praktikatzeko mendia.

• Juergazalea?

Bai, izugarri gustatzen zaizkit juergak.

• Aurtengo udan nora?

Abuztuan udalekutara joango naiz eta gero joatekotan mendira.

• Zer behar da ondo bizi ahal izateko?

Danetik apur bat, zorientasuna eta maitasun giro bat egotea da garrantzitsuena. Eta hau gehi dirua perfektu.

• Nora bidaiatuko zenuke aukera izanez gero?

Leku exotiko batera, Thailandiara; Afrikako Kilimanjaro mendira eta Hego Ameriketara ere gustora joango nintzateke.

• Zure ametsa?

Hegaz egitea. Nire betiko ametsa piloto izatea izan da. Pertsonak hegaz egin behar du.

• Beldurra zeri?

Bakarrrik sentitzeari, lagunik barik sentitzeari, baina ez bakarrrik egoteari.

• Pertsona batengan zer baloratzen duzu?

Konfiantzazko pertsona izatea.

• Deskantatzeko lekurik onena?

Nire ohea.

• Egin dizuten putadarik haundiena?

San Ferminetan azera baten lo utzi ninduten.

• Zerk pozten zaitu?

Inguruan poztasuna badago horrek pozten nau. Ingurua triste badago zu ere tristetu egiten zara.

• Bizitzeko adinik polifena?

Orain oso ondo bizi naiz.

• Gustoko abestia?

Gozategiren "Emoiztezu musutxuek".



Irakurtzeko liburuak



Titulua: Marcovaldo eta urtaroak hirian.

Idazlea: Calvino, Italo

Argitaletxea: Euba: Ibaizabal, 1992

Saila: Literatura unibertsala, 16

Liburu hau 1952 eta 1963 bitartean idatzi zuen Calvinok. Bertan hogeitau ipuin kontatzen dira, bakoitza urte sasoi bati eskeinia; beraz, bost aldiz errepikatzen da lau urteroen joan etorria. Alegien antzeko istorioak dira eta denetan Marcovaldo da protagonista. Marcovaldo hirira lanera etorritako etorkina da eta naturaren beharra sentitzen du. Hasierako ipuinetan neorealismoaren eragina nabaria da, gerra osteko gosea eta pobrezia agerian geratzen direlarik. Aurrerago publizitate basati eta kontsumo gizartearen kritika egingo du.

Ipuin laburrak dira, biziak eta oso ironikoak. Pertsonaien psikologiari baino ekintzei ematen zaie garrantzi haundiagoa, eta ipuin amaieran ustegabekoren bat gertatzen da ia beti.

✍ Joseba Lopez de Armentia



ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

BASTER-ALDE
JATETXEA

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

BERGARA



Uztailak 24, 25

GOIMENDIKO (BASALGO) JAIAK

Uztailak 24, gaueko 9,30etan jaien hasiera **berakasopak auzoko plazan.**

Gaueko 10,30etan **erromeria ELORTZA** soinujoleekin.

Uztailak 25, 11etan **meza**; 12etan **herri kirolak.**

Eguardiko ordu 1etan, **PEÑAGARIKANO eta**

SOROZABAL bertsolariak. Arratsaldeko 6,30etan bolo txapelketa. Gauean erromeria **EPELE** anaiekin.

ARRASATE



Uztailak 19

LORE GAZTEAK DANTZA TALDEA

Lore Gazteak dantza taldeak emanaldia eskainiko du Monterron parkean gaueko 10,30etan.

Uztailak 23 martizena

BASKIRIAKO ERREPUBLIKAKO TALDE FOLKLORIKOA

Baskiriako Errepublikako talde folklorikoak emanaldia eskainiko du Monterron parkean gaueko 10,30etan.

Uztailak 25 eguena

ZINEA

"Días contados" filmea ikusgai egongo da Monterron parkean. Monterron parkean gaueko 10,30etan.

OÑATI



Uztailak 28

FOLKLORE EMANALDIA

Portugaleteko folklore jaialdian parte hartutako **Egiptoko** talde bat izango da Santa Ana antzokian gaueko 10,30etan.

BEKA

Santamarina auzoko liburutegian prestakuntzarako lankidetzaz beka baterako deialdia

Bekaren iraupena 1996ko irailaren 1etik 1997ko uztailaren 30a artekoa izango da. Astean 20 ordu.


Eskabideak uztailaren 19a arte aurkeztu daitezke Udal liburutegian edo udaletxean, kultura sailean.

Informazio gehiago 79 09 00

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



HAIZEA
AKEITEGIA


Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

ZARAIA
TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

Okindegia - Gozotegia



Aretxabaleta

Mitarte, 1 - Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

MENDIOLA
ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA



Uztailak 19, 20, 21

SAN LORENTZOAK PORTASOL AUZOAN

Egitaraua hamabostean behin atalean.

Uztailak 20 zapatua

PALOMARESERA IRTEERA MURRUKIXO M. E. PALOMARESERA

mendi irteera antolatu du. Irteera goizeko 8etan izango da partenoitrik. Izen ematea Arlutz tabernan edo Murrukixon egin daiteke. Bazkideak 800 pezeta ordaindu beharko dute. Bazkide ez direnek barriz, 1000 pezeta.

Uztailak 21 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Narvaxa-Egino-Olazagutia-Urbaşa kanping-Olazagutia-Egino-Zalduendo-Landa-Aretxabaleta. 118 Km.

ZARIA MENDI TALDEA

Hondarrabira irteera eta argazki ralya egingo da. Irteera goizeko 8etan.

XVII. BIZIKLETAZ IBILDIA DEBARA

Bailarako ekologista taldeak antolatuta eta "IBAIK GARBI GARBI" lemapean Debara bizikletaz ibilaldia egingo da.

Uztailak 24, 25

KORUETA AUZOAN SANTIAGO JAIK

Uztailak 28 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Arroiabe-Gamarra-Eroski-Nanclares-Pobes-Salinas de Añana-Nanclares-Eroski-Gamarra-Urbina-Aretxabaleta. 132 Km.

Uztailak 31 eguaztena

SAN INAZIO EGUNA MURU ALDE ELKARTEAN

Abuztuak 14, 15, 16, 17

ANDRAMAIXAK

Abuztuak 21 eguaztena

IBARRAKO ALDAGELA ETA ESERLEKUEN INAUGURAZIOA

ALAVES -ERREALA partidua jokatu da. Juan Arregi eta lehen plantilako guztiak omenduko dira.

Gaztetxean kontzertuak

Uztailak 25, eguena

"DIRTY LUST" talde kataluniarra eta "ARSENAL" Arrasateko taldeen kontzertua. Lehenengoak Rock and Tul musika mota jotzen du eta dena ingelesez abesten du. Arsenal taldeak oraintxe atera du maketa berria. Musika mota: Punk Rock. Ordua: Gaueko 10etan Gaztetxean.

Uztailak 27, zapatua

"A PALO SECO" Alcalá de Henares-eko taldearen kontzertua. Ordua: Gaueko 10etan Gaztetxean. Sarrera: Dohain.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otolara 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28
ARETXABALETA

J.J

ITURGINTZA

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

*Iñurrategi anaiak eta
Mugarri goren goreneari!*



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tfnoa: 79 07 44-54 • Faxa: 79 62 54

I/MUGARRI